



GetxoMeeting, maiatzaren 25a: Zure bezeroak ezagutzen dituzu?

Getxomeeting hamabosteroko topaketak bi ostegunetik behin egiten dira, hilabete guztietan. Esperientziak partekatzeko espazio bat da; hala, Getxoko ekintzaile eta enpresentzat kezkarri diren gaiak jorratzen dira; horrenbestez, oso *networking* baliagarria da.

Saio honetan aurkezpen-txanda bat egin dugu, elkar ezagutzeko eta gure enpresak nahiz proiektuak ezagutarazteko. "Termometro" bat erabili dugu hasieran geneukan energia neurtze aldera. Saioak aurrera egin ahala, hasierako energiak aldatu dira, positiboki.

Gure bezeroei edo balizko bezeroei buruz dakiguna jorratu dugu, eta ikuspuntu desberdinak eman ditugu segmentazio ona egiteko moduei buruz. Halaber, produktua saldu nahi diozun pertsona ondo ezagutzeak daukan garrantziaz aritu gara.

Bai binaka, bai denok elkarrekin egindako hausnarketa horietatik abiatuta, eragina daukaten *marketing*-kanpainen buruzko debate txikia sortu da, hots, pertsonen alderik emozionalenera heltzen direnen inguruan.

Kaferako atsedena lasaiagoa izan da; izan ere, beti dago topaketa hauetara lehenengo aldiz datorren norbait, eta badaude ere aurreko beste saio batzuetatik elkar ezagutzen duten beste batzuk. Elkar apur bat hobeto ezagutzeko unea da.

Getxomeeting-en bigarren zatia sortzaileagoak izateko eta eragina izango duten *marketing*-kanpainak egiteko erabili dugu. Taldeka egin dugu lan, ideia berriak jaso, adimena ireki eta iritziak partekatu ahal izateko. Hizpide ditugun topaketak konfiantzazko giroa sustatzeko espazioak dira, eta horietan norbera nahiz gainerakoak ez epaitzen saiatzen gara.

Gaurko saioan parte hartu duten pertsonak, beren kanpainako lanaz gain, honako alderdi positiboak eskuratu dituzte:

- Lehen pentsatu gabeko gaiez hausnartu ahal izatea.
- Beste pertsona batzuekin esperientziak partekatzeko ilusio handia.
- Taldean eta zure jarduerarekin zerikusirik ez duten pertsonekin lan egiteko aukera.
- Proiektuekin aurrera egiten jarraitzeko gogoia.
- Ondoren zure enpresan aplikatu eta garatu ahalko dituzun tresnak.

Iruditu bazaizu saio honek zure bulegotik irten, airea hartu eta adimena irekitzeko balio izan dizula... anima zaitetz eta hurrengora etor zaitetz!

(Ekainaren 8an. Saioak bi ostegunik behin egiten dira, 12:00etatik 14:00etara, Getxolanen).

Izena aurretik eman behar da.

Izena emateko, mezu bat bidali dezakezu getxolan@getxo.eus helbide elektronikora edo, bestela, 944660140 telefono-zenbakira deitu.

Nahiago baduzu, Getxolanera ere bertaratu zaitetzke (GetxoElkartegia; Ogoño kalea, 1, Areeta).

Hurrengora arte!